


# Nafarkaria

Nafarroako gehiagarria / Ostirala, 1994ko ekainaren 24a / IV. urtea / 133. zenbakia

'Pakean ützi arte' izena daraman eleberria plazaratu berri du Itxaro Borda idazle baxenabartarrak. Zuberoan gasbidearen eraikuntzaren inguruan izan ziren oldartzeak abiapuntutzat hartuta, herrialde horren karta postala ere azaltzen digu idazleak, Oragarretik duela lau urte heldu zenetik franko aldatu den karta postala, hain zuzen. Lan hau euskal lurraldetasuna jorratuko duten bost nobelaren lehen emaitza da, hortik aurrera Amikuzera, Erriberara, Arabara eta Donostiara bertara hurbilduko baita Itxaro, bazterretik zentrorra, alegia. Lurraldetasuna eta bazterrak, beraz, idazle ahantzi honen azken emaitzak. Ahantzia Iparraldean, bederen, oihartzun eskasa izan baitute beren lanek 'Basilika' izeneko lana plazaratu zuenetik. Astindu ederra eta ez oso gogokoa, nonbait. Egun, Zuberoan laketu da, Maulen, eta bertako airearen zilar urdina aipatzen du, baita alde egin ondoren itzultzeko duen gogoia eta zuberotarren zintzotasuna ere. Manexina nafarra xiberotarren artean.

## Itxaro Borda, manexina nafarra



Itxaro Borda.

ALBERTO BARANDIARAN

### Teilatuetako katuak

**Z**oologo batzuek esan dutenez, katu mota berri bat sortu da hiri-buruko kaleetan azken urte hauetan. Goi mailako garapena lortu duten zibilizazioetan sortu diren izaki berrien artean, hutsik dauden tokietan sartzeko eta bertan bizitzeko duten zaltetanari kasu egiten 'Felis Okupensis' izendatu dute animala berezi hau. Iruñera heldu diren zientifikoek aspaldi omen zuten felino klase honen berri: «baina honera etorri behar izan dugu, hemen inon baino hobeto

bizi baita», deklaratu diete kazetariei. Baina ikertzeko tokirik hoberena jadanik galdu dela diote jakintsuek: «Lore Etxea izeneko tokia zuten gordelekurik maitatuena, baina espezie berria Ingurugiroko legeak babestu gabe utzi zuenez, felino hau desagertzeko zorian gelditzen», azpimarraten dute, penaturik. Beste gainerako katuak bezalako ohiturak omen ditu 'Felis okupensis' honek; teilatuetan barna ibiltzea ez omen zaio asko gustatzen, baina izugarrizko trebetasuna erakusten

### Lur deslaia

PILI YOLDI



du beharrezkoa denean. Arrain puska batekin edo beste edozeinek in erraz moldatzen da bizitzeko, nahiz eta askotan —ka-

letarra amorratua denez— ardo edo zerbezari gustura eman. Modu zikinean bere atzetik dabiltzan zakurrei gogor egiten die aurre, dituen zazpi bizitzetara esker ia beti libratzen delarik.

Lore Etxetik ihes egin behar eta gero, bizirik iraun zutenek pare bat urte besterik ez omen dute behar izan Iruñeko espeziea gero eta indartsuago berpizteko. Orain hilabete, hutsik zegoen alde zaharreko frontoi baten talde bat ageri da, hogeitaino gehiago lagunek osatuta. Bere familiakoak ez diren beste animala mota batzuen laguntzaz, orain arte bizirik atera dira 'selekzio naturala' delakoak bi-

dean jartzen dizkien oztopo guztiengatik, nahiz eta bere etsai arriskutsuenei —'arrazak hobetuak' direlako txakur bel-durgarri horiek— aurre egin behar. «Arazo zaila dugu gure metodologia betetzeko, Felis Okupensis iheskorra eta zapuzti baita» azpimarratzen dute ikertzaileek, «eta oraindik ez dakigu Iruñean bizi denak gure ikerketa onartuko duen ala ez; momentuz, erabiltzen duen hizkuntza eta portaera imitatzen saiatuko gara, hirietan bizitzeko etorkizun handiko espeziea dela eta, edozein zokoe-tan sortzeko eta garatzeko modukoa».

## GURE AUKERAK

### BERTSO SAIOAK

**Xabier Amuriza** eta Sebastian Lizaso bertsolarien emanaldia izanen da bihar larunbata, ekainak 25, Lekarozko sagardotegi berrian. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 21.00etan hasiko da.

**Millan Telleria** eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira bihar larunbata, ekainak 25, Arizkun. Bertso bazkari moduan antolatua, eguerdian izango da, herriko plazan.

### ANTZERKIA

**'Munduko Malabaristenak'** izeneko antzezlanaz plazaratuko du asteburu honetan Zirkotipia taldeak Nafarroako zenbait herrian. Gaur, ekainak 24, Lizarrako Foru Plazan ariko dira, arratsaldeko 17.00etan. Bihar larunbata, Auritzen taularatuko dute aipatu obra, herriko plazan eta ordu berean. Heldu den aste-ko asteartean, ekainak 28, Orkoienean izango dira, eguerdiko 12.00etan, herriko plazan.

**Trokolo**, Melody Sisters eta La Tropera antzerki taldeek ariko dira heldu den astean Tafallan, Kultur Patronatoak antolatutako Antzerki Zikloan. Asteartean, ekainak 28, 'Ali baba y los cuarenta ladrones' izeneko obra taularatuko du Trokolok, gaueko 22.00etan, Kultur Etxean. Asteazkenean, 'El cambio' antzezlanaz aurkeztuko du Melody Sisters taldeak ordu berean eta ostegunean 'Comedias de Chejov' lana antzeztuko du La Tropera taldeak.

### BESTELAKOAK

**'Dinosaurios'** musika taldeak bi kontzertu eskainiko ditu asteburu honetan, Atarrabian eta Zangozan hain zuzen. Gaur gauean Atarrabiako Udaletxe Plazan ariko dira, gauerditik aurrera, eta bihar, ekainak 25, Zangozako Kultur Etxeko Lorategian joko dute, gaueko 21.30etatik aurrera.

**Nafarroako Trikitilarien** Lehen Txapelketa ospatuko da asteburu honetan Lesaka eta Arbizun, Euskal Herriko Trikitilari Txokoa Elkartek antolatuta. Bihar larunbata, ekainak 25, Lesakan ariko dira, gaueko 22.30etatik aurrera, eta igandean Arbizun, arratsaldeko 18.00etan hasita.

## NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

### Hil eta gero

Erriberrik igande honetan ospatuko du Nafarroako Jaialdiak bertan egitearen aldeko kultur jaia. Halaber, uda osoan zehar kultur ekitaldiak izango dira herrian, aurtan lehendabiziko aldiz. Hilda gero, salda bero. Alegia, alde egin ondoren, zerbaiteko baliotutela Jaialdiek.

Kritika ugari eta zer esan

ren, baina, zaila izan zitzairen erritmoari eustea, nonbait, eta ezarian ezarian motelduxe agertu ziren, indar faltaz, gogo akiturik. Markotegiren urte hauetan, gero eta oihartzun eskasagoa eskuratu dute ekitaldiek, eta askotan aipatu da hilketa goxoa burutu dutela Vianako Printzearen erakunde-ko buruek. Desagertzea

bakiaren aurka. Tabernariak eta, nonbait, diru asko galduko dutela, eta herriak berak bisitari asko. Ez da horretan gelditu, ordea, erantzuna, eta orain kultur ekitaldiak prestatu behar dituzte udan zehar

Bide honi jarraituz gero, Nafarroako hainbat herri ere uda honetan bertan hasi beharko lukete hainbat ikuskizun




franko sortu du Nafarroa duela 12 urte kulturalki ospetsu egin zuten Jaialdi hauen norabideak. Hasieran mail handiko ikuskizunak eskaini ziren Erriberri, Valentin Redinen gidaritzapean zeudela, eta inoiz ez bezalako talde eta emankizunak ikusi ahal izan ziren gure lurraldean. Ondo-

besterik ez zela falta, alegia.

Erriberritik ateratzea izan da azken urratsa. Horrekin kendu zaie ikurra eta izateko arrazoia, eta inork ez daki zehatz-mehatz zer darabilten buruan Yerro eta bere laguntzailerek. Erantzuna ez da gehiegi berandutu, eta Erriberri bertan, herri osoa altxatu da era-

prestatzen eta antolatzen, Jaialdiak inoiz izan ez dituztenen aitzakiaz. Lortuko genuke, horrela, Jaialdiek soilik hasieran lortu zutena: kultur giroan murgildutako Nafarroa, ikuskizun-erakunde blai. Cid Campeador borrokalari famatua bezala hil eta gero lortuko lukete horrela garaipekin handiena. Hala bedi.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Javier Otano**  
PSNko idazkari nagusia

Nafarroako sozialistek beren V. Kongresua egin zuten pasa den asteburuan. Aurretik iragarria zegoen moduan, Gabriel Urralburuk idazkari kargua utzi zuen eta PSNko ordezkariak Javier Otano aukeratu zuten haren ordez. Tuteran orain 48 urte jaioa, Javier Otano Parlamentuko lehendakaria da egun eta oraindik karguari eusteko asmoa agertu du. Kongresuan jipoi ederra jaso zuten Federico Tajaduraren inguruan biltzen diren kritikoei. Alderdia berritzeko eta barne funtzionamendua aldatzeko asmoz joan baziren ere, botoen % 20 besterik ez zituzten eskuratu eta, ondorioz, uko egin zioten zuzendaritza talde berriari sartzeari. PSNko batzorde eragilea kolore bakarrekoa da, beraz.



**Gavilan**  
Huajoloteen abeslaria

Kojon Prieto y los Huajalotes taldeak 'Siganle compadres' bere bigarren diskoa aurkeztu zuen astelehenean Iruñean. Jakin badakigu Huajoloteak musika talde bat baino izar konstelazio bat dela eta, horregatik, ez gintuen batere harritu Gavilan abeslaria aurkezpenean ez agertu izanak, ezta Gor disketxekoaren erromantizismoak ere: XXI. mendearen atarian, postaz bidali zuten deia. Esan gabe doa beranduegi iritsi zela. Gainerakoan, oso ongi. Osotara hamabi abesti bildu dituzte disko berriari, hamar beraienak eta bi bertso (La Polla Recordsen 'Txus' eta 'Popurri laureao' tradizionala). Diskoa Berrizko Lorentzo Recordsen grabatu dute, aurrena bezala, eta 'Cancion de risa' abestiaren bideoa Manolo Gilek egin du.

### AHAZTU GABE!

#### ARGAKO JAITSIERA



**Argako Jaitsiera** izanen da asteburu honetan, urtero bezala, garai hauetara iritsiz gero ohizkoa denez. LANE eta Eguzki talde ekologistek antolatuta, ekitaldiak bihar, ekainak 25, hasiko dira, igandean segitzeko. Goizeko 10.00etan geratu dira, Burlatoko 'La Nogalera' izeneko tokian. Hortik, bakoitzak egindako txalupa mota guztiak hartu eta ibaira botako dira, jaitsiera hasteko. Ibilbidetan azken hilabetetan garbitu diren lekuak ikusi eta bisitatuko dituzte, baita zaramaz beteak eta zaindu gabe daudenak ere.

Bazkaria Magdalenenan egingen dute, eguerdian, eta arratsaldean Sanduzelaira iritsiko dira partaide guztiak. Igandean segituko du jaitsiera, Garesko prestatik, goizeko 10.30etan, beranduegi, eguerdiko 15.30etan, Mendi-gorrian amaitzeko.

### JENERO XUMEKOAK

#### Tempus fugit

Agurea urbanora igan eta supituki sugez jantzitako andre batek bere aulkia eskeini dio. Agureak biziki eskertuz, ezetz esaten dio. Andreak agurea eseri arazten du. Agurea aho zabalik geratu da. Aspalidanik ez nengoen ikusita hain urbanoki zahar deitzeko horrelako modurik.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Navarriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Galar-Getze

# Noingo bataila gogoan

PATXI ULAIAR / IRUÑA

1521ean Nafarroak galdutako independentzia berreskuratzeko egin zen Noingo bataila oroituko da igandean, Iruñetik aterako den martxarekin. Hainbat taldek deitu dute ekitaldira, bertan gogoratuko baita Nafarroako historian eragin handiena izan duen gatazka.

1521eko ekainaren 30ean Nafarroaren independentziaren azken ekitaldia izan zen. Bederatzi urte lehenago Albako Dukearen armadak Espainia osatzeko azken erresuma bereganatu zuen, eta Nafarroak mendeetan zehar izandako burujabetasuna galdu egin zuen. Hainbat saio izan ziren independentzia berreskuratzeko, eta lehendabizikoa 1512an bertan. Orduan, Joan erregeak berak hartu zuen parte, eta Lizarra, Tafalla, Cabrega eta Monjardin hiriak inbasorearen aurka altxatu ziren. Hala ere, Albako Dukea berriro itzuli zen Iruñera, eta Joanen armadak alde egin behar izan zuen Frantzia aldera. 1516ko martxoaren 21ean izan zen bigarren saioa, Izaban burutu zen borroka alegia. On Pedro mariskala, Nafarroa Behereko eta Biarnoko 1.200 bat zaldunek lagundurik Izaban sartu zen, baina Villalva koronelak txikitu egin zuen bertan.

Saio garrantzitsuena, ordea, 1521ean izango zen, Noingo batailarekin hain zuzen ere. Nafarroako Errege-erreginak hilda, Enrike 'Zangozarra-k' hartu



Amaiur izan zen Nafarroako independentziaren borrokan gune garrantzitsua.

zuen agintea, eta 12.000 lagun bildurik, Nafarroa Beheretik sartu zen Nafarroa Garaian, biarnesek lagundurik. Tuteran, Lizarra, Erriberri eta beste zenbait herri armadaren alde egin zuten, eta Iruñean ere altxatu zen jendea. Baina Gaztelako armada berehala abiatu zen Nafarroarantz, eta Noingo zelaietan borrokarik gogorrena izan zen. Nafarrek galdu zuten, eta 5.000 hildakotik gora izan ziren bertan.

Antolatzaileek, ospakizunokin, orduko gertakariak gogoratu nahi dituzte, «hori baita bide bakarra nafarrok elkar gaitetzen eta guztion Nafarroa eraiki dezagun». Izan ere, prentsaurrekoan

azaldu zuten, guda honekin Nafarroako historiaren norabideak aldaketa funtsezkoa izan zuen, ordura arte independentea izan bazen ere, hortik aurrera Espainia barnean galduta geratu zelako. «Nafarroa nazioen katalogotik ezabatu zuten».

Oroitzapen ekitaldiak atzo ostegunean hasi ziren, arratsaldeko 7.30etan Iruñeko La Unica peñan egin zen hitzaldiarekin. Bertan, Juan Maria Olaizola jaunak 'Nafarroa, Joana Labritekoa bere azken erreginaren arabera' izeneko mintzaldia eman zuen, eta Jon Oria Osés doktorea 'Nafarroa humanistaren beherakada-z' mintzatu zen.

Heleta

# Harley Davidson motor bilaldia ikusi ahal izan zen igandean

L.E. / BAIONA

Joan zen igandean ezohizko gertakaria izan zen Heletan, Hego Akitania eta Espainia Iparraldeko Harley Davidson motor ospetsuen jabeen bilaldia antolatua zelakotz.

Harley Davidson motor aipatuek berekin daukate Estatu Batuetako ametsaren irudia. Motorraren arloan autoarenean Rolls Royce dena da, hots, gauza miragarria bai teknologian baita apainduraren ere. Horrela kromearen distira notagabea ezinbestezkoa da horrelako tresnaren jabearentzat.

Beste apaindura, motorraren gurpil eleganteen alboan dira

ihes-hodi zilarezkoak eta eserleku osoak. Hauk oro gainera ezer ez dira gidariaren elegantzia gabe. Honentzat alfa eta omega bezain garrantzitsua da larruzko txamarra, hots, *perfecto* deitzen den horietarik. Oinetakoek mitologia horretan parte hartzen dute, *santiag* famatuak direlarik.

Nahiz legeak agintzen duen buruan erabili behar dela kasko bat, gehienek demostrazio eta erakusketa eguna zenez, buruko amerikarrak zituzten. Premiazko da ere gaurko modari jarraikiz tatuajeak izatea. Are gehiago motorraren atzean neska panpin apainaren ekartzea. Batzuek mitologiaren errepikatze nabaria ikusiko dute hor edo indioilarren

apaintzea amodio garaian.

Hots Heletako plaza, Besta Berri eta aurreko igandean 'Otaba' iragan ondoren, pottoka berezien puitarrekin zegoen. Jendea bildu zen jende burges gazte aberats honen miresteko eta dena ongi iragan zen. Bazkaria, tokiko ostatu aipatueta, festa, herri kirolen erakusketa eta ezinbestezko kantariak Baigura mendiaren magalean iragan ziren.

Emozioa inoiz galtzen ez denez, arratsaldean Miarritzen ezkondu ziren bi motor gidari gazteei ongi etorria egin zitzaie, erakutsiz Harley Davidson eta ametsa ere ezkontzen direla nolazpeit.

Uhart

## Euskararen Eguna asteburu honetan

IRUÑA

Uharteko Euskararen Eguna ospatuko da igandean, baina gaur hasita zenbait ekitaldi antolatu dituzte bertako Udalak eta Berritasuna Elkarteak.

Gaur, ostirala, akordeoi kontzertua eta Koiuntura Folk taldearen emanaldia izango da Atondoa presan eta bihar, larunbata, haurrentzako jokoak izanen dira igerilekuan, 16.30etatik aurrera.

Ondoren, 18.00etan, pilota partiduak antolatu dituzte eskuz zein paletaz. Eskuz Etxandisueskun Esain-Corbillonon aurka ariko dira, eta paletaz Udaberriko Txapelketako finala jokatuko da.

Igandean, goiz-soinuak izango dira Uharteko gaiteroekin goizean goiz, eta 10.00etan kalejira, hankapalo, zanpantzar, erraldoi, txistulari, dantzari, gaitari eta Zintzarri txarangarekin.

Eguerdian euskarazko meza izango da, Virgen Blanca abesbatzak lagunduta, eta 13.00etan emakumezkoen herri kirolak. Bertan frogak konbinatuan izango dira Berriozar eta Basaburu-Baztango taldeak aurrez aurre.

Ondotik Ortzondo dantza taldea ariko da plazan. 14.30etan herri bazkaria, eta ondoren trikitilariak eta bertsolariak: Manu Gomez, Amaia Teiletxea eta Iñigo Olaetxea. 19.00etatik aurrera dantzaldia izango da Anker taldearekin.

## Batailak

Noski, jakina, nola ez ba, mila esker lau teiltu gainean ilargia erdian gu goruntz begira eduki gintuzuen bost gazte ausartoi, zuen ausardia izan baitzen geroko garaipenaren zutaberik finkoena. Eta bereziki, mila esker megafonoa eskuan Euskal Jairen puntaren puntatik gure alde eta besteen kontra deidarka eztarria urratu zenuen horri. Ari, ari, ari, zu zara kalendari, barkatu, lehendakari.

Joxe Mari Gartzia, Dani Bakarti eta Baztertu, Koldo Zumarrarena, Enkarnitxu, Karlos Errementari, Uztaila Otero, Jaime Otamendi, José Manuel Geltoki, Mikel Bufanda, On Goio, Martinezar Zuñiga... asko eta asko dira iratiaren dialean barrena bilatzerakoan topa ditzakun izen eta abizendun ahotsak, NANdun irrati gizon-emakumeak. Haatik, nik Eguzki Irratiko ahots indokumentatuei eman nahi dizkizuet eskerrak, zuek izan zineten eta garaipenaren ahotsa.

Mila esker, halaber, alde zaharreko auzokide guztioi. Mila esker lapikoak joka eskua mindu zenuten guztioi. Mila esker lapikoa balkoitik behera 'jausi' zitzazuen guztioi. Mila esker ahalik eta zaratarik handiena egitearren balkoia gogorregi jotzeagatik bastoia hautsi zitzazuen jubilatuguztioi.


Mila esker, bestalde, Kongrio, Jokin eta *in the front line* ibili zineten gainontzeko huajoloteoi. Mila esker Avanti populoa la discorsa, Internazionaleta zalditegiaren zarpigarrenaren doinua jotzeagatik. Mila esker Huajolote horien ondoan, aurrean eta atzean Euskal Jairen alde oihukatu, korrika egin eta bestelako kontuak egin zenituzten guztioi. Aipatutako guztioi mila, hamaika mila esker.

Makina bat aldiz entzun izan dizkiot nire aitonari Ebroko batailaren gora-beherak. Nik 50 urte barru ilobei deus ezin izan nien niela kontatu uste nuen jada, baina zuei guztioi esker, zer kontaturik edukiko dut, 1994. urteko ekainaren hamaseiko Euskal Jaiko bataila, garaipen historikoa. Surrealista samarra, agian, baina, historikoa finean. Guztioi mila esker.





XAKEAN




Udaberri Torneoaren zortzigarren ihardunaldiko partida, 1994ko ekainaren 11an jokatua. Cesar Torres, 1.680 ELOkoa-Carlos Fernandez De la Hoz.

1. d4, g6; 2. c4, Ag7; 3. Zc3, d6; 4. e4, Zd7; 5. Zf3, c5; 6. d5, Zh6; 7. h3, f5. Ateraldia hausnartu gabekoa izan da beltzen aldetik, posizioa behar bezala neurtu barik. 8. Ah6, Ah6; 9. f5, f5; 10. Zh4, Zf6; 11. Ad3, Db6; 12. Dc2, Ad7. Zaila zen 'f5-eko' peoia babestea. Beltzek garapena egitea aukeratu dute, peoi hori gabe eraso egitea errazagoa izanen delakoan. 13. Zf5, Af8; 14. 0-0-0, 0-0-0; 15. hG-e1, Ge8; 16. g4, Gg8; 17. Ze4. Txuriek amarrua satu nahi diete beltzei. Ikus koadroa. Jokaldia, ordea, ez da ateratzen. 17..., Af5. Peoiak sakabanatzea bada ere, alfila jatea da jokaldi bakarrak.

18. Zf6, Ad3; 19. Gd3. Hobe zen damaz harrapatzea. 19..., Ah6 xa. Txurien asmo oro deuseztatu duen jokaldia. Hemen-dik aurrera, pieza bat gutxiagoz aritu behar! 20. Eb1, f6; 21. Ge6, Dc7; 22. Da4, Dd7; 23. Da7, Ge6; 24. e6, De6; 25. Da8 xa, Ec7; 26. Da5 xa, Eb8; 27. Dc3, Ge8; 28. Ec2. Erregearen ihesbidea itxurazkoa da. Gero eta inguratuago aurkituko da. 28..., De2 xa; 29. Eb3, Af4; 30. Ea3, Ae5; 31. Db3, Ab2 xa; 32. Ea4, Ad4; 33. Eb5, De4. Partida ongi hasi, baina gaizki jarraitu. Txuriek burua makurtu zuten.

**B**azen behin mutiko talde bat. Beraien artean oso ondo moldatzen ziren. Egun batean mendira joatea proposatu zuten, eta lagun guztiak ados jarri ziren. Denak gauzak prestatzera abiatu ziren, eta bakoitzak bere gauzak ekarri zituen. Denak mendira abiatu ziren. Guztiak oso kontent zeuden, eta abesten joan ziren. Bide erdian bi lagun nekaturik zeuden, eta geratzea erabaki zuten. Bi talde egin zituzten, eta batzuek aurrera segitu zuten. Besteek hor bertan akanpatu zuten. Tomas izeneko mutiko batek ipar-orratza zeraman baina gaizki ze-

## Ateraldia




Oiher Lekumberri

(LEITZA)

ez zioten uzten joaten gainerakoan be-raiek ere galdu egingo ziren eta. Ordu-bete pasa ondoren, artzainarekin topo egin zuten. Artzainak kontatu zien nola egon zen beste lagunekin. Orduan hauek gaua hor pasatzea erabaki zuten. Gau osoa esnaturik pasa zuten, eta beldurrez.

Beste lagunak azkenik hauekin elkartu ziren. Orduan denek ondo lo egin zuten. Hurrengo goizean goiz jeiki eta gosalduta ondoren mendira abiatu ziren. Mendian jolasean hasi ziren batzuk, besteak gauzak ikusten, eta besteak bazkaria prestatzen. Ongi bazkaldu ondoren, gizon arraro batzuk hurbildu zitzaizkien.

Gizon haiek handik alde egiteko esan



goela ez zen konturatzen. Hauetako mutil batek gaizki zihoazela esan zuen, eta beste lagunak nahiko preokupaturik gelditu ziren.

Taldea ikaritzen hasi zen. Urrutian zintzarri batzuek entzun zituzten, eta harantz abiatu ziren. Handik 5 kilometrotara artzain batekin topo egin zuten. Ar-

tzainak gauz batzuk kontatu zizkien mendi hurari buruz. Artzainak bere bordara gonbidatu zituen lagun haiek. Denak oso tristen zeuden.

Orduan artzainari laguntza eskatu zioten. Artzainak etxerako bidea erakutsi zien. Akanpatutako lagun batzuek bes-teen bila joan nahi zuten, baina besteek

zieten, orduan haietaz susmo txarrak izaten hasi ziren, eta espiatzea erabaki zuten gazteek. Kobazulo ilun batera iritsi ziren. Kobazulo hartan urrea zegoen, lapur batzuen babeslekua zen. Mutil hauek poliziaren bila joan ziren, eta Poliziak kartzelan sartu zituen lapurrak. Mutil hauei dirua eman zioten.

## Teodosio Goñikoa (eta III)

Bestalde Teodosiok egin zuen krimena, dudarik gabe, latzena da, bere ama akabatzea, Pascual Duarte bezalako lagun odolgaiztoek bakarrik egin dezaketena. Edipok bere aita akabatu, eta bere amarekin ezkondu zen. Hamlet-ean gizon batek nahita anaia garbitu eta alargunarekin ezkondu. Kain eta Abel, Coppolaren Aita Jauna maisulanak, Guzman Ona, Julio Cesar eta Brutus. Zerrendak ez du finik. Ahide eta senideen arteko hilketak tradizio handikoak dira, bortitzenak bait dira. Eta Teodosioren krimena hain krudela da, non merezi bait du amaierarik gabeko zigor bat. Prometeoarena

edota Sisiforena bezalakoa. Zazpi urte pasata, eta katea lustratu besterik ez zuen egin Teodosiok. Une horretan agertzen zaigu Aralarko Herensugea, hiru buruko dragoia. Erdi Aroko sinismen kristauaren arabera, dragoia deabru eta Gatzokeriaren sinboloa da, Bibliako Apocalipsis-i eginiko oharretan eta Lebiatanean ikus daitekeenez. Gure kasuan garbi dago balore hori duela, eta hain zuzen ere Teodosio Goñikoa ez da gauza izango bakar-bakarrik dragoia menperatzeko pekataria bait da, eta horren lekukoa da gerrien daraman katea. Arturo Erregearen tradizioan agertzen denez, zaldun zintzo-

JUANTXO URDIROZ




**Ez usteak zure atean joka**

**Teodosio Goñikoa ez du bakarrik etsai beldurgarri baten aurka burukatu behar, baizik eta Deabruaren beraren kontra.**

zintzoek bakarrik gandi ditzakete oztopoak. Teodosio Goñikoa dragoiarekin burukatu behar duenean, mugatua da gorputzez nahiz espirituz.

Arturo Erregearen tradizioan eta Amadis-ean agertzen zaigun dragoia laikoa da, eta heoiaren neurria hartzeko besterik ez du bali. Gure leiendan, uste horretakoa gara, ez gara herensuge berri horretara ailegatu. Goñiko Teodosiok ez du bakarrik etsai erraldoi baten aurka burukatu behar, baizik eta Deabruaren beraren kontra. Eta nor aproposagoa ote laguntzeko halako larrialdi batean, alde aurretik deabrua irabazten ibilia den Jaun Done Mikel baino? Jaun Done Mikelen laguntza ere oso esanguratsua da, bera bait da armada kristauaren buruzagia. Armada kristau horren islaldapen li-

terariorik argiena Arturo Erregearen zaldun tropa izan zen. Jaun Done Mikelek lantzaz aklabatzen du dragoia. Arturo Erregearen tradizioan agertzen da Longinosen lantza, Kristori saihetsean Longinosek sartu ziona. Odola Darion Lantza esaten zitzaion. Lanta horri ere Lantza Mendekatzaile zeri-tzaion. Bi ahalmen zituen, beraz. Lantza horrek osatuko du Errege Zauritua, hankarteak ezindua zuena. Eta lantza horrek ere gaixto aunitz garbituko ditu. Hemen bezalaxe, lantza horri esker Herensugea akabatu eta Teodosio Goñikoa bere zama galtzen du. Esateke daude oraingoz leienda honek dituen beste nabardura asko, baina gureak egin du. Gizon zahar batek zioenez, «guk beti aurretik erraten bait ziguten, sinetsi egiten genuen hura».



*Fazeriako kabalak.*

Ordua	Kabaladunen izenak	Herria	Etak	Etak	Erraitekoak
1	Auzquy - Marchot	Arnéguy	4	5	
6	Echemendy - Dorca	id.	3	5	
8	Boloquy - Chapar	id.	1	6	
10	Errecart - Abot	Isprua	2	3	
11	Aldacourrou - Aguerria	Uhartea	1	9	
16	Gastelu - Betsunetche	Ainhiza	6	8	
23	Gastambide - Mantola	Arnéguy	1	6	
24	Aldacourrou - Aldabia	Isprua	4	1	
25	Laradar - Gainco - Lorta	St-Jean-le-Vieux	6	7	7 behi badira segun deitzen
34	Paulorina - Larria	Isprua	6	7	
35	Officialdeguy - Bikartou	Uhartea	1	8	
38	Bidegain - Trumbéhère	St-Jean-le-Vieux	6	7	
40	Echemendy - Bonattou	Arnéguy	3	7	
41	Auzquy - Echeverria	id.	6	9	
43	Laco - Baptiste	St-Jean-le-Vieux	1	6	6 behi badira hori, etzizuel arizganaren gainean.
44	Aresteguy - Antchiburu	Isprua	1	9	
45	Havriet - Aleira - Borda	Arnéguy	2	10	
65	Sandaburu - Michel	Ainville	6	7	6 behi mardakari, deli besterik ezin ote bada bat mardakari
76	Echemendy - Bastilia	Arnéguy	3	6	
78	Caillava - Bidegain	Bustince	1	8	8 behi badira hori, bat mardakari gabe mardakari arizganaren gainean.
81	Doray - Pideca	Arnéguy	2	3	
83	Chapital - Barberaia	Uhartea	6	7	
99	Idiart - Harispuu	Uhartea	2	7	
100	Douchoulou - Chaltro	Arnéguy	4	9	
101	Mouhousteqy - Becotche	St-Jean-le-Vieux	6	7	7 behi badira hori segun.
103	Errecart - Chiquellou	Arnéguy	10	11	
104	Aresteguy - Predo	id.	1	2	
111	Etcharren - Lohola	Uhartea	7	9	Kasa hura me... 7 behi badira hori segun.
117	Tribarne - Yakorra	Arnéguy	11	13	
119	St-Océ Camino	Uhartea	4	5	
	Orchuelu - Uhuvaldia	Uhartea	4	5	4 behi hori segun mardakari arizganaren gainean.
	Orchuelu - Uhuvaldia	Uhartea	4	5	8 ehin arizganaren gainean, deli behi arizganaren gainean.

**A**ezkoako artxibategian aurkitutako zenbait eskutitz zahar dakarkizuegu oraingoan, bertako garbiketaren ataratako azkenak. Aezkoako Junta eta Garaziko sindikataren artekoak dira denak, fazeriei eta mugei buruzkoak. Bitxiak dira oso, bertan azaltzen den euskara dotore eta ondo moldatua dela kausa.

## Paper zahar gehiago

XAMAR / GARRALDA

Aezkoako artxibategian atxemandako Euskarazko bi gutunen berri eman ginduen duela hilabete zemeit, oraino garbiketa lana bururatu gabe zegoelarik. Egun, lana finiturik, agertutako bertze izkribuen berri emanen dugu. Guziak Garazikoak dira, muga kontu: fazeria eta mugariak, hain zuzen. Lemixikoak Léon Kurutxet Garaziko idazkariak idatzi zituen, kargodun baten heriotzaren berri emateaz gain fazeriari buruzkoak dira:

*St-Jean-le-Vieux, le 8 Avril 1905 Adiskide Julian, Morde Etcheverriren phartez izkiriartzen dautzut yakin arazteko behar zinduketela okupatu gauazko beharraren kontratuaren berritzeaz.*

*Contratu hori finitzen da heldu den oxailan. Morde Etcheverric nahi luke yakin leheneko aldietan bezala behar diren desmartchen egiteko erreparaoc hartuko dituzuenez. Demora berian morde Etcheverric othoizten zaitu igor dezazun berehala Luzaideko aduanara usaiako bermearen documenta.*

*Egin ezadazu othoi arrapostu bat bi gauza horien gainean.*

*Zure adiskide Léon Curutchet St-Jean le Vieux le 28 Octobre 1907 Cher Monsieur*

*José Larrañeta, Pena handi batekin yakin arazten dautzut, Morde Louis Etcheverry, gure syndica ohoragarria eta anitz maitatua, hil izan dela hilabete hunen 15an. Morde Luro Lacarracoac egiten du orai haren plaza. Yain hunen phartez igortzen dautzut abisua helduden astelehenean, azaroaren 4an, prest izanen girela zuen pagatzeko. Yinen zira beraz egun hortan Donibanera zure lagunekin.*

*Sosa altchatuko duzue Prezeturrean eta gero baskalduko gira elgarrekin usatu bezala, á l'Hôtel des Pyrénées.*

*Beraz helduden astelehen artio.*

*Zure zerbitzari Léon Curutchet*

Hauekin batera bada kabala lista bat. Bertan idazkariak aditzera ematen dako Aezkoako Juntari nor ari zen gezurretan artzainen artean. Badirudi lista hau lehen plazaratu ginduen gutunari dagokiola, hartan beitzen gai hau nagusi. Funtsean artzainak, kabalean arabera pagatu behar zuten, buru zemeit markatu gabe uzten saiatzen ziren.

Garazin deklaratu haziendak egitan zituztenak zirela garbi ageri da; mugako bortuetara heldu ondorean, berriz, batzu 'galdu' egiten ziren eta gutxiago markatu, gutxiago pagatu beharrez xakina.

Halere harrigarri da ikustea nola deklaratu zuten egia Garazin, sari engainatzeko asmotan bazebiltzen bedere. Kontua da Baxe Nafarroako kargodunak fermuki ari zirela fazeriako eginkizunetan eta zaila izanen bide zen kabalak izkutatzea deklaratzeko tenorean (errez bilakaten omen zena markatzerakoan, 53 buru falta beitira listaren arabera!)

Bixtan da axola handiz jokatzen zutela eta zaloiki gaztigatzen atxemandako legehauslei buruz, ez zedin engainabiderik izan, hango artzainen kaltetan bazen ere.

Lista xeheki emana da, artzain, etxe eta herrien izenak ematen dituelarik, faltan eman behiak eta ohar zemeit. Segur nize Garaziko kabaladunak ez zirela batiere kontent haien agintarien prestutasunaz. Finitzeko Esterenzubiko alkateak egindako bi

**G**arazin deklaratu haziendak egitan zituztenak zirela garbi ageri da; mugako bortuetara heldu ondorean, berriz, batzu 'galdu' egiten ziren.

mezu ditugu. Bietan mugariak ikustatzeko kontu aipu da.

Lemixikoan 'Eroisseta' aipatzen da biltzeko tokia; nago ez ote den Errozate mendia izanen, haren magalean, Arpean, beitago mugarri bat hain zuen:

*Esterenzubey le 10 Aout 1863 Estérençubico, herrico, Jaun mairac, Alkhatiac, eta demora berean limiten verificationneco Déléguatu denac.*

*Othoizten ditu, Espainiaco Errésunaco Aezcoan diren, Jaün, Jose Luis Arrese, eta Juan Miguel Berrueza, orobat Délégué direnak, beren limiten verificationneco, guri marcatzeaz noiz ethorrico diren, Erroissetaco limitala, bornen edo cedarien verificationnearen eguiterat. Horiac jiten direnean gu han caussituco gare. Othoi arrapostata berehala.*

*Badut othoria cuen saludaceo,*

*adisquide guissa, Le Maire Etcharren*

Bigarrenen 'Dn jaün Joanes Miguel Khoanarena' bat aipatzen da. Duikabe Khoanarena hori Juanarena da, zaila egiten bide zitzaien J fuertea idaztea baxenafartarrari sobera usaturik ez izanik. Derragun Juanarena ezaguna dela bailaran egu ere (ene bigarren deitura preziskiki). Nafarroa Garaiko irakurleen argitzeko derragun ere aipatu Le-

kunberri ez dela Larraungoa naski, Garazikoa beizik:

*Gouc beherian sinatcen dugu, Esterençubico Alkhatiac, declaratcen dugu, Errecebitu dugula, abostuaren 19an 1863, Eguerdicto orenetan, Dn jaün Joanes Miguel Khoanarena, Espagnola ganic, Ordria, Jalguiteco, Cedarien verificatcerat; Esterençubico limitacoen hilabete hunen 25an eta Lecumberricoac hilabete 26an Iskribatua dena par Dn Jose Luis Arrese Délégué Espagnol, eta cargatu guira Lecumberrico Delegatien aber-ticerat.*

*Eguina Esterençubin Abostuaren 19an 1863.*

*Le Marie Etcharren*

Gure ibarreko artxibategian ez dira gehiago antxemanen, jada miatuta beitago guziz. Baina zenbat dugu begiratu gabe Herrian barna? Eta tamalgariago dena... babestu gabe, galzorian? Aezkoan berean artxibategiak hala-hola egon dira berriki artio. Herrietan bada zerbeiten premia beti: hersturak konpontzea, bideak berritzea, urak bideratzea... eta holako ausarki; baina kasik sekulan ez da beharretan sartzen zoko batean dagoen paper zaharrez betetako kutxa hori antolatzea.

Ea hedatzen den behar hori berant baino lehen, premiatsuentarikoa beitu.

# «EAJk ez zituen aintzat hartu nafar buruzagiak Errepublika garaian»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Tesiaren ardatz gisa Errepublikako nazionalismoa hartu duzu. Zergatik hain zuzen Errepublika garaian?

**JOSU CHUECA.**— Nie ustez, mende honetan badira bi abagune nahiko berezi eta beroak, oso urte mugituak izateagatik. Bat da frankismoaren bukararekin hasten dena, hortik abiatzen den trantsizio politikoa, eta bestea Errepublikakoa. Garai honetan bada perspektiba historikoa eta jorratu gabe dago. Euskaltzale nafarrentzat, gainera, betiko galderak dira: Zergatik ehun urte hauetan Nafarroako nazionalismoak ez du izan Gipuzkoan edo Bizkaian izan duen arrakasta? Zergatik ez da hemen sustraitzen? Zergatik gaude oraindik banaturik Euskal Herritik?

**EGUNKARIA.**— Eta galdera horien erantzuna Errepublika garaian bilatu daiteke, nazionalismoak izan zuen betekizuna aztertuz gero?

**CHUECA.**— Nik uste dut baietz. Garai honetan ikusten da nolabaiteko porrota izan zuela nazionalismoak. Hutsune asko daude, eta horietako bat, euskal nazionalismoaren baitan Nafarroaren esparrua.

**EGUNKARIA.**— Diferentzia handia al dago Nafarroan eta beste euskal probintzietan garatu zen nazionalismoaren artean?

**CHUECA.**— Bai, badira ezberdintasun batzuk. Diskurtso politikoan, hemengo jeltzaileek atzematen dituzte Nafarroak dituen berezitasunak, eta horiek eragina dute beren diskurtsoan eta beren taktiketan. Atzematen dute indar politikoaren artean dagoen indar oreka, desberdina dela, eta saiatzen dira kokatzen bere ideologia jeltzale hori Nafarroako egoeraren barruan. Esate baterako, hemen esango dute estatutua eta foruak sinonimoak

direla, eta hori Gipuzkoan eta Bizkaian ez da erabiltzen.

**EGUNKARIA.**— Nafarroako nazionalismoak oso pertsonai funtsezkoa izan zuen: Manuel Irujo. Beste probintzietan ez bezala, alderdiak ez zuen apenas irudirik. Zer eragin izan zuen horrek?

**CHUECA.**— Zalantzarik gabe Manuel Irujo da garai horretako nazionalismoko pertsonaiarik garrantzitsuen eta be-

ten Jose Antonio Agirre etorriko zela, eta nahiz eta hemengo buruzagiek ezetz esan, azkenean Agirre etorri egin zen. Ordura arte hemen zegoen buruzagirik garrantzitsuen, Manuel Aranzadi, EAJk baztertu egin zuen zerrenda honetatik. Estatutuaren eztabaidentan ere, hemengoek esan zieten Bizkaikoei behin eta berriro hemen gauzak ez zihozazela oso ondo, eta gauzak ezkertiar

dorioz, beste hiru probintziek estatutuaren aldeko ibilbidea burutu zuten, eta Nafarroa gelditu zen erabat kanpo. Jadanik sekulan ez da hurbilduko.

**EGUNKARIA.**— Zein izan zen nazionalismoaren akats handiena Nafarroan?

**CHUECA.**— Alde batetik, oso eragin instituzional murrizta izan zuela eta gero bat egin zuela estatutua gauzatzeko



Josu Chueca, Iruñean.

ALBERTO BARANDIARAN

re aniekin batera lan izugarria egin zuen. Baina bada politikari, buruzagi eta militante talde nahiko zabala, nahiz eta oso ezagunak ez izan. Hor dago Jose Agerre, 'La Voz de Navarra' egunkariko azken zuzendaria. Hor daude ere Manezaundi, Angel Irigarai, Anastasio Agerre...

**EGUNKARIA.**— EAJren barruan zer eragin izan zuen Nafarroako nazionalismoak?

**CHUECA.**— EAJk izan zuen arreta handia Nafarroako gauzeekin, baina ez dakit hemengo buruzagiek izan zuten eraginik, alderdiaren barruan, batez ere aukera inportanteenetan. Lehenbiziko hauteskundeetan, Euskadi mailan egin zen hitzarmen bat nazionalismo eta beste indar eskuindarren artean. Bizkaian erabakitzen zu-

eta sozialistekin mugitu behar zirela. Bizkaikoei ez zieten garrantzirik ematen, eta gero gertatu zen gertatu zena: Biltzar famatu horretan izugarriko porrota.

**EGUNKARIA.**— Hain zuzen ere, 1932ko ekainaren 19an Iruñeko Gaiarre antzokian Estatutua onartzeko egin zen bilera famatuak zer garrantzi izan zuen benetan nazionalismoaren garapenean?


**CHUECA.**— Oso handia ordur geroztik, Errepublikako urteetan bi bide sumatzen zirelako: alde batetik Nafarroa eta bestetik beste hiru probintziak. Hemengo nazionalistek oso garbi ikusten zuten sozialistek edo tradizionalistek beren jarreraren alde ez bazuten EAJk hemen ez zuela indarrik estatutua aurrera eramateko. On-

«EAJk kontu handia izan zuen Nafarroako gauzeekin, baina ez dakit hemengo buruzagiek eragina izan zuten alderdiaren barruan».

Euskadiko eskuinarekin. Beraz, hemengo sozialistek kokatzen zuten segituan nazionalismoa eskuindarren esparruan, eta Errepublikaren etsai gisa hartzen zituzten. Eta horregatik izan zen lehendabiziko estatutuaren porrota. Asko izan dira akatsak, baina kontuan hartu behar da Nafarroako testuinguru politikoa oso desberdina dela. Berezitasun politikoen indarra ematen diote tokian tokiko politika bati, hau da, nafarzaletasun edo nafarzaletasunari, esate baterako. Gainera, beste lurraldeak baino anitzagoa da eta zailagoa da politika bat aurrera eramateko. Kontuan hartu behar da ere Errepublikako aroa oso motza dela, eta nazionalismoak ez zuela denborarik bere prozesu osoa burutzeko. Hori heldu arte, bakarrik bost batzoki zeuden Nafarroan. Gerra piztu zenean, 23 ziren.

## Josu Chueca

HISTORIAGILEA



SOSLATA

### Aztertze arazoak

Errepublika garaiko nazionalismoa Nafarroan aztertzen duen tesia aurkeztu berri du Euskal Herriko Unibertsitatean Josu Chueca historilari nafarrak, sei urteko lanaren ondotik. Bertan aztertu ditu Nafarroan nazionalismoak izandako jardunbidea eta ezaugarriak, eta okerrik handiena estatua gauzatzeko eskuindarrekin egin zuten akordioa izan zela dio. Lerinen jaioa duela 38 urte, lau urte artxiboak miazten eta beste bi idazten aritu da Chueca, eta horretarako izan dituen arazoak aipatu ditu bereziki. «Errepublika garaiko dokumentazio asko desagertu zen eta beste asko eskuindarren artxiboetan edo egongo da. Garai bera aztertzen ari garen historilari guztien arazoa da».

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

